

BANCO GUIPUZCOANO

Jabien arteko dirutza: 25 milloi peseta

Ordezkarriak:

Azkoiti'n, Azpeiti'n, Bergara'n, Bilbao'n, Billabona'n, Billabona'n, Deba'n, Eibar'en, Elgoibar'en, Ernani'n, Enderri'n, Iruñen, Madrid'en, Mondragon'en, Oñatin, Oyartzun'en, Pasaia'n, Tolosa'n, Zarautz'en, Zestona'n, Zumaia'n eta Zumarraga'n.

Euneko 2'an gordetako diruak, bai danean ateratzeko eran, bai pezetetan, bai frankotan ta bai ingeles esterlinak beretan. Noranahodiruz-artekeko idazki edo kartak. Diru-gordeketa. Diru-etxe arteko eginketa.-Aldi jakinerako diru-jartzea, iru illabeterako, euneko 3; sei illabeterako, 3'60; urtebete naiz gelagorako, 4.—Zerbaitxo emanda guztiz kutxa gogorretan, gorde litezke balio aundiko pitxiak, bai aji aundiko paperak bai diru-txartelak abar eta abar.—Zernalko artu-emanak, aldaketak erostetarak ere gordeketa.

dun «Andre Kasilda» egokiagorik biltzen naikoa lan. Apurtxo bat zartxeagoa agertzeko zerbait egin ballote, noski. Ori guztietan ongien.

Alegiarren lanari zer epai eman? Ongi? Ederki? Ederki.

Jazkeraz eta agerkeraz egoki; ibilkeraz eta egokeraz, ondo xamar; esakeraz ondo, ta esaten zutenari esku-jokabidez ta imintzioz ederki laguntzen zioten.

Ori «Bernaino'ren larriak» antzerkiari dagokionez.

«Iturrian» Alegi'ko Amonarritz jaunaren antzerkiari buruz berriz ona lengoaren iritzia:

«Mutiko bat ez besteak emakumeak dira antzerki ontan. Ta ederki antzeztu zuten. Oso ederki. Mutikoa ere oso bikain aritu zan.»

Batzaldirako lana egin zuten Alegi'tarren ondoren Lezo'tarrek merezi dute noski alpamen berezia larunbatez eta igandez egin zuten lan aundiagatik. Larunbatean Pasaia Antxo'n ziran «Eusko-Gogoa» antzeztan. Ederki egin omen zuten beren lana. Igandez berriz arratsaldean Erretera'ko batzokian eta arratsalean Deun Kepa Pasaia'koan. Langilleak ez ba dira ba Lezo'tar auk. Jende gazte berria omen da antzezlari-taldeak osatzen duna. Beajondalela!

Donosti'ko Euzko-Gaztedi'koak Andoain'en omen ziran. An omen ziran Amalexu txikia ta Olaitzola ta Zabaleaskoa ta Egileor eta Beorlegi ta...

Ernani'n Iruñ'go Euzko-Etxea'koak. «Izartxo» ta «Bernaino'ren larriak». Jende ona omen daukate antzeztaldeen. Ori ona!

Ondarrabi'tarrak «Bost urtian» egin omen zuten beren errian.

Eta Urnietan ere ba omen zan antzerki-jala ta baita Mendaro'n ere, baita Legorreta'n ere. Ta nun ez?

Antzerki-jalak egiten dran areto guztietan antzezlariak eta ikusleak euskera utsean itzegingo ba lute. Ori gauza...!

«Urte berri: asmo berri.» Artu gogozin guztioz asmo orixe. Ia ba...!

ALBIZTUR

IGAZKO URTEAN ERRI ONTAN JAYOAK, ILLAK ETA EZKONTZAK

Igaro zan igandeko Meza nagusikoan gure Erretore jaunak iragarri zigunez, ajiyo ta batayatuak 76; illak 8 eta 4 ezkontza izan ziran.

POZIK AGURTU GENITUN EMEN

Ataun'go San Gregorio'n Koadjutore dagon Errezola'tar Martzelino jauna, orain iru aste, eta Lizarza'n koadjutore dagon Labaka'tar Karmelo, Arabako Urarte'n Erretore dagon Laskibartar Konstantino ta Araba bereko Angostina'n Erretore dagon Martinez'tar Luzio jaunak, igaro zan astean emen izan zitzaizkigunean, pozik agurtu genitun lau apaiz gazte ta erriko seme maite oyek.

OTZ AUNDIA

Izotz eta lantzurde aundiz txit apaindurik argitu zitzaigun ill onen 11'ko goizean, otz aundia genun emen. Beroneurri edo obeki esateko, ozneurria zerotik bera... sel malla galgaterano jexi zitzaigun da.

Gau artan ontz-oyurik ez nuen rik entzun; pitxian ongi gorde ziran nun edo nun. Artot'esne beroak artuaz katillun... otza menderatzeko

gogotik jan nitun!

LUISTAR

ALEGI

Juan dan astean Beistetzeko alaba Elola'tar Martine il zan, elizakoak artu ondoren.

Baita, aste berean il zan Diputazioako bide-zai izandako Arruabarrena-tar Pedro, Goyan begoz, gure lagun Ugarte'tar Iñaki'ren alaba jalo berri bat, Miren Larraitz izen polita ipiñirik.

Emakume abertzaleak arreo-txiki apain bat, bere jantzitxo ta berogariekin eman zioten

Zorionak aurtxo jalo berriaren gurasoi.

—Bidan'ko euskel idazle jatorra dan «Baso-lore», bere adiskideen artean egun batzuek igarotzera etorrita emen arkitzen da. Ongi etorria.

—Batzoki ontako antzertigille gazteak gogor dabilta egun oyetan.

Eguarri egunean «Bernainoren larriak», «Neskamearen marmarrak», eta «Eguarri» antzeztu zituzten Batzokian, Urrengo igandean Erretereriko Batzokian, «Aldiz-aldiz», «Jauregi-errotako astoa» ta «Oleskari berria».

Urte berriz, Tolosa'ko Euzko langilleen areto nagusian, bertako langille lagun baten laguntzarako egin zan jai-aldian «Bernainoren larriak», «Porru salda» ta «Oleskari berria» agertu zituzten.

Erregetan, umetxoan arean jostailu ta goxo asko banatu ondoren, guztien pozkarri izan zan zine-polit ta atsegin bat erakutsi zan.

Juan dan igandean, gure antzezlariak Donosti'ko Poxpolintegin agertu zituzten «Bernainoren larriak» eta «Iturrian» bi egintzetan. Atzanean iku si bear nor ateratzen dan garairi Antzerki Batzaldi ontan.

Datorren igandean, 27'an, Andoain-era joatekoak dira gure antzezlariak ango Batzokiko agertokian antzeztutza.

MOXKOLEGI

Dr. Olaizola

Guztitarik sendakintza (Cirujia general), Rayos X, Rayos Ultravioleta eta Diatermia
Urrutizkina 90. egunero 11'etatik 1'era eta 5'etatik 6'etara
ZUMAYAN

ALTZA

SENDAGILLE BERRIA

Aizpurua'tar Lander jauna sendagille ona, G. B. il ezker sendagillearik gabe bageunden ere, orain Oyartzun-ge sdme Irigoien'tar Roman jauna daukagu. Urte asko, zoriontsuak, gurekin egitea opa diyogu.

EZKONTZA

Igasitako astean ben betiko uztartu dira Larrañaga'tar Miren, abertzale egokia, Enderri'ko gazte jator batekin. Zorionak zuen bizimodu berrian.

BATZOKIYA

Usobiaga sendiak utzi egin du ta Berri'tar sendiak artu du. Irabazi aundiyak atera, adizkideak.

—Guarko igande ontan apostolado-kuak izango dute illeroko Jaun artzea; datorrenian Luistarrak Guztioz etorri zaitezte zuen egitekorik aundiyenera.

ZUGAIZPE

ANDOAIN

1934'g. urtian erri onetan jayo ziran irurogei ta amazap; aur, euskel izena ezarriaz amazap; ta erdel izena irurogeiri, ill, berrogeita bederati ta ezkontzak amabi.

1933'g. urtian irurogeita aamse jayo ziran ta euskel izenaz batayatu.

Aurten bost euskel izen geyago zabaldu dira erri onetan bafia oraindik oso aurrerapen gutxi daramagiku orrenbeste abertzale dagoen errian. Gai onetaz idazteko asmoetan degu «Belkoain» erri onetako idazle aipatua. Ia lenbailen izaten dan, irakurtzeko zaletasuna daukagu zure lantxo ori ta adiskide.

Juan dan igandian Donosti'ar antzezlariak izan ziran erri onetan antzerki jai eder bat ematera etorri ta. Au urtero egin oi dute bertako antzezlarien omenaz, gero guziak Batzokiko aretoan bilduaz afari ederra egiaz, abertzale jatorra dan P. Anilbarro'tar Luken jauna buru dutela.

ORRI BELTZA

Elizakuak ta Doipuruaren onespina artuta il da Jaunaren besoetan Irateta Josebe jauna oso ezaguna ta maitia errian, G. B.

Laguntzen diet atsekabe aundian bere alargun, seme alabei ta gainera guztiei alde guztietan ta eskatzen diet irakurle maiteak otzitz dezatela bere alde. Baita ere atsekabe bete gerade jakin degunian Zipitria'tar Balentin'en eriotza. (G. B.) Sasoyik onenian eldu zayo eriotza. Oroimenaren begiz beti betiko zorionian dakusgu. Agur anai! Jaungoikuaren alboan arki adl. Eusko'tar guztion otzitzak jasoko aldituk. Zeru goitik lagunakiguk.

Laguntzen diet atsekabeen bere guraso naigabetuak, anai ta ezkon arreba, ta gaineratzeko alde guztiei.

PATXI

VASCONIA OPTICAL

(Merkiena saltzen duan etxea.)



Nikelezko betaurrekoak ... 4.50
Urrezko betaurrekoak ... 18.-
Kristalik finenak ... 2.-
Kristal borobilduak, bakotzak... 5.-
San Jeronimo, 17 DONOSTIA

Udaletzeko atzean.

ANTIGUO

IZPAR BELTZA

Aurreko egun batean il da auzo ontan Ekogor-txiki baserriko emakume gaztea. Eriotza etorri zailo bere lenengo aurrak (bixiak izan zitun) izan ondoren; goxo samar zegola ta andik egun batzuetara Jaungoikuak bereganatu zun.

Bi aurrak ondo emen daude, eta zorionak gurasoari emateko asmuari geundela. Sabin eta Mirentxu euskel izenak ipiñ ondoren otartxoak jaso zituztelako gureganatu da berri saminkor au.

Illeta eta gorputza jaso, Igeldo au-

AZPEITIA

ITZALDI ZORROTZA

Erri onetan dantza nastuan asko aritzen dirala-ta, igaro dan igandeko meza nagusian itzaldi zorrotz bati egin zuben Tzaunburu agurgarriak.

Beste gauza askoren artian esan zigun Mariaren alaba gifañol, Plaza orretara dantzarako asmoakin goazean, zinta ta medalla baztertera botata zartzeko barrura, juntakua orrenbeste buru-berotze ta naigabe eman gabe, izan ere tamalgaria da erri onetan orrenbeste neskatza maituen dantza orretan ikustea!

ACURTU

Bilbao'tik etorrita emen agurtu genduen igandean, euskel idazle jatorra dan Errezil'ko «Garbife» andereño argia.

ERREZIL'KO M. B.RI

Aizpatxu maitiak: Ona emen zuek eskatzen didezuten «Loretxu», ta orre galk Jaungoikuaren laguntzarekin azaitezte idazten, zuen idazki bigun da mamitsuak ikusteko pozik aundienekin gaude-ta.

JEXUKA

LAXTERKETA

Igasitako igandez, emengo zezen eparantzan iragarrita zegoen bezela joku katu zuten Uegun'dar Maren Ayako

EUSKELTZALEAK



Marca registrada 99.35

ARA ZUEN ORRATZAI

Legazpi, 10ⁿ.-Urrut. 13777.-Donos

ARRONA

ASTEKO BERRI LABURRAK

Arbe-Tolarenko aurtxo txiki baten lur ematea igandean izan zan.

—Egoaldi ebikus dabilkigu aspal-di onetan; oraingo onetan emengo lurak oso asetik geldituko dira.

—Oidengo ta Kazaolako neskat gazteak deia igandean zuten. Eta Mardu-etxeberrikoena b'garrena.

—Arrasatetik etorrita emen agurtu degu Edurra'tar Eugenio z'ar alar guna, Berezia'tar Maria.

—Gure artean Egoarrik egin da Mardid aldera joan zaigu Gorriti'tar Eustakio gizon jakintsua.

—ARGIA'ren Egu'gia arrapastake dumaite Serapiaren eskuetatik. Aurtengo saririk aundiena oneta iritxiko ote da?

ZIOLAR

Irakurri astero A R G I A

Ernardorena Ortizlari (Dentista)

Urrutizkina
1-33-50

Prim, 31, 2^g. - DONOSTIA

Sarasola'tar Juan M. Semeak

Afobi aundietako arbel lantegiak

Gaur egunean izan litezke lankai edo makinarik befi ta egokienakin lan bikañak egiten dira Arbel (pizarra) onenari; trinko ta garbia Paris'ko Ekola edo Laboratueta zuzendariak beren azterketa agiritan dioten bezela. Edozein lanetarakoak. Ludiko efi guztietarako,

ISASONDO (Gipuzkoa) - Ufutzizkina 18

Zuzenbidea urfutzizkiz: SARASOLA

Villafranca de Oria

INGI MARGOZTUAK

P A P E R P I N T A T U A K

DAMAZKO IRUDIKOAK, TXINO, KRETONAK,

:- ZURPETA EDO TAPIZERI, ETA ABAR :-

URUZOLA

Garibal, 7.-DONOSTIA

URRUTIZKINA 1-03-2

Lexia "EL OSO., (autsa)

Ez da oberik langillien arropa garbitzeko eta aropa zuria zuritzeko. Aropai ez die kalterik egiten, ezta eskuak ere ere.

Arana Goiri-tar Sabin, 16
Fabrika PASAIA'n